

KANALAK

Gure zerbitzua bezeroengana helarazteko iragarkiotaz baliatuko gara, eta hori lortzeko zenbait modu erabiliko ditugu, hala nola Interneta, institutueto informazio panelak eta haien webguneak, bertan gure egitasmoa azalduz; gainera, etxeetara panfletoak bidaliko ditugu. Horrela lortu nahi dugu ahalik eta irakasle eta ikasle gehiagok gure enpresaren berri izatea, gure bezeroak izan daitezen.

Bestalde, bezeroek aplikazioa Play Store/App Store erabiliz deskargatu dezakete, guztiz merkea dena, eta izena eman eta beste sarbide galdera batzuk erantzun eta gero erabiltzeko aukera izango dute arazorik gabe. Horrela ikus daiteke aplikazioaren erabilgarritasuna edozein pertsonaren eskuetan dagoela eta, gainera, gure bezeroekin kontaktuan egoteko aplikazio hori erabiliko dugu.

Gainera, arestian aipatutakoaz aparte, hitzaldiak ere emango ditugu ikastetxe publikoetan. Modu honetaz, aplikazioan dauden erabiltzaileez gain, beste sailtako pertsonekin harremanetan egoteko aukera izango dugu. Horrela gure zerbitzuak gehiago hedatzeko aukera izango du.